

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



**Legazpiko gabonetako argiak eta apaindurak.... eztabaidagai.**



Zein da egungo eredua? Nola baloratzen dugu? Ba al dago bestelako proposamenik?

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren zazpigarren bilera honetan, eta gabon-jaiak gertu ditugula kontuan hartuz, gai garrantzitsu bat eta dagoeneko Legazpiko Eskola-agenda 21ean aztertu den gaia **lantzeko asmoa agertu dugu**. Merkatariak ere gai hori aztertzea eta Foroak iritzia eman dezala eskatu dute.

### Nortzuk?

Horretarako, gaur legazpiar ugari etorri dira forora, ohi baino gehiago. Gazteak eta adinekoak, neskak eta mutilak, Legazpiko ikastetxeetako ikasleak, herriko merkatariak, Udaleko ordezkariak,.... Guztiok bi orduko bilera konpartitu dugu. Foroaren lorpen txikia eta gure ibilbidea aberasten duena. **Esker mila guzti guztioi!!!**

Izena	Izena	Izena
• Begoña Lekue (Iratzarri)	• Irati Maiztegi (ikaslea)	• Floren Gutierrez
• M <sup>a</sup> Amor Martínez del Blanco (Iratzarri)	• Aitor Agirreurreta (ikaslea)	• Juan Karlos Altzelai (Harri-Urdin Brinkolako Auzo Elkarte)
• Arantxa Ibarreta (Iratzarri)	• Maialen Jauregi (ikaslea)	• Joxan Auzmendi (CEIDA)
• Manuel Fernández (Buztintegi)	• Charo Morras	• Jose Luis Ugarte
• Juncal Fernandez	• Antxine Soraluze (Olazabal BHI)	• Garbiñe Egaña (Ilinti)
• Montse Vallejo	• Aitor Campos (ikaslea)	• Agurtzane Elustondo (LENBUR)
• Patxi Mencias (Haztegi Ikastola)	• Ines Eleta	• Rafael Gomez
• Iñaki Mauleon (Domingo Agirre Ikastetxea)	• Bakartxo Martinikorena (Domingo Agirre Ikastetxea)	• Asier Galdos
• Mikel Zabala (ikaslea)	• Ibon Gurrutxaga (ikaslea)	• Ana Salinero (EB-Berdeak)
• Jon Ander Delgado (ikaslea)	• Arantxa Seguro (Haztegi Ikastola)	• Sotero Plazaola (Alkatea)
• Koldo Etxebarria (ikaslea)	• Sagrario Etxabe (Haztegi Ikastola)	• Jon Uribeetxerria (A21eko zinegotzia)
• Andoni Agirre (ikaslea)	• Maite Lazaro	• Inma Hernandez (A21eko teknikaria)
• Unai Etxaniz (ikaslea)	• Lurdez Etxaniz	• Iciar eta Zorione, Prometea SC
• Fernando Martínez de Albeniz	• Sagrario Diaz	
• Josune Makaia (UGGASA)	• Juan Carlos Agirre	

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Gaurkoa: gaia kokatuz

Gabon-jaiak gertu ditugunez, egun horietan herrian jartzen diren argiak eta apaingarriak aztertu nahi izan ditugu. Horretarako, gaiaren ikuspegi desberdinak aurkeztu dira lehenbizi: batetik Udaleko Agenda 21eko teknikari Inma Hernandez langileak aurkeztu du berea; ondoren, Legazpiko ikastetxeetako ikasleek gauza bera egin dute eta, azkenik, Ilinti merkatarien elkartearen izenean Garbiñe Egaña aritu da.



Hitz gutxitan:

- **Udalak**, orain dela urte batzuk, gabon-jaietan jarriko zituen argiak diseinatu zituen eta, horretarako, herriko motiboak erabili zituen eta energia-eraginkortasuna izan zuen kontuan. Gainera, argi horiek Udalak INEMekin sinatuta duen hitzarmenaren mende egin ziren eta herriko langabetu-talde bat ibili zen lan horretan. Modu berean, argindarraren kontsumoa murriztea izan da irizpide nagusia eta horren arabera erabaki dira argiak pizteko egunak eta orduak. **Gai horrek debatea sortu du herritarren eta herriko talde zehatzen artean eta herritarren parte-hartze foroan eztabaidatu nahi da gaia** aukera hoberena adosteko.
- **Legazpiko ikastetxeak** eskola-agenda 21ean daude murgilduta eta ikasleek energiaren gaia aztertu dute ikasturtean zehar eta, batez ere, gabon-jaietako argiak eta apaingarriak aztertu dituzte. Horrezaz gain, **proposamen zehatzak egitera ausartu dira** eta horretarako iraunkortasun-irizpideetan oinarritu dira.
- **Ilinti merkatarien elkarteak** da gai honetan zeresana duen beste taldea eta merkatariek gaia nola ikusten duten azaldu digu elkarteko ordezkariak. Eguberrietan herria apaintzearen alde daude eta modu horretan bertako dendak indartu nahi dira, kontutan izanik gero eta herritar gehiago joan ohi dela merkatal gune handietara erosketak egitera. Zentzu horretan, Garbiñe elkarteak egin nahi dituen proposamenak azaldu ditu<sup>1</sup>.

### Hausnartzeko gaiak: taldean egingo dugu lan.

Hasierako informazio hori jaso ondoren eta ikastetxeetako ordezkariak eta Ilinti merkatarien elkartekoak aurkeztu dituzten lehen proposamenak bildu ondoren, lanean hasi gara. Talde txikietan banatu gara eta **ondorengo galderak erantzuten saiatu gara:**

1. Gaur egungo gabonetako argiak, horrela mantenduko ditugu?; ba al dago bestelako proposamenik?
2. Gabonetako argiak pizteko egunei eta orduei dagokienez, zer dio Foroak?
3. Zein bestelako apaingarri (argi-kontsumorik ez dutenak) proposatzen dira gabon-jaietan Legazpi apaintzeko?
4. Bestelako ideiak.

### Debatearen emaitza: Foroaren hausnarketa eta proposamenak

Galderaz galdera, segidan Foroan adostu diren ideia nagusiak jasoko ditugu:

<sup>1</sup> Ikusi 1. Eranskina.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 1. Gaur egungo gabonetako argiak, horrela mantenduko ditugu?; ba al dago bestelako proposamenik?

Foroa gaur egun gabon-jaiak apaintzeko erabiltzen den argi-sistema mantentzearen alde dago (energia aurreztea bultzatzen duelako). Hala ere, sistema hobetzeko proposamenak egin dira. Hona hemen:

- Iraunkortasun-irizpideak aintzat hartuz, garrantzitsua da **energia aurreztea eta ezarrita dagoen helburua begi bistatik ez galtzea**. Horregatik, herria apaintzea eta iraunkortasuna bat egitea nahi dugu:

¡Gure  
proposamenak

- **Itzal daitezke herriko argiak** gabonetarako argiak jarri diren lekuetan? Modu horretan, konpentsatu egin daiteke energia-gastua. Proba egitea proposatu da.
- **Zergatik ez konpromiso bat hartu** (hartu beharreko neurriak hartuz) eta gabonetan kontsumitzen den energia urtean zehar aurreztu? Hori lortzeko ekintza desberdinak proposa daitezke, hala nola, egun eta ordu zehatzetan herriko argiak itzaliz edo zuhaitzak landatuz (kontsumitutako energiak airera isuriko duen CO<sub>2</sub> konpentsatzeko...).

- Modu berean, ideia desberdinak jaso ditugu **argien diseinuari eta argitu daitezkeen lekuei buruz** (eta ez ahaztu energia aurrezteko gure irizpidea bete behar dugula!); hauek dira proposamenak:

¡Hainbat  
ideia!

- Udaletxeko **fatxada** apaintzea (adibidez, kolore desberdinetako izarrak jarriz).
- Berdeguneetako **landareak argiekin apaintzea** (adibidez, Pio aldapako irlatxoak, Laubide eta Bikuñako errotondak, "la serena"ko irlatxoak,...). Aukera egongo litzateke eguzki-energia eta hotzarekin argia ematen duten bonbillak erabiltzea?
- **Argiez gain, girlandak edo beste apaingarriak erabiltzea** egunez ere ikus daitezzen. Gaur egun zaila da hori, bonbillek tenperatura handia hartzen dutelako eta erretzeko arriskua egon daitekeelako. Etorkizunean diseinua aldatuko balitz, posible izango litzateke elementu desberdinak erabiltzea egunez ere ikusteko eta kontsumoa aurrezteko.

### 2. Gabonetako argiak pizteko egunei eta orduei dagokienez, zer dio Foroak?

Eztabaida aberatsa izan dugu eta, bertan, jarrera desberdinak batzen saiatu gara (energia aurreztea, gabon-jaiak apaintzearekin eta herriko merkataritza bultzatzearekin lotu nahi izan dugu) eta honako erabakia hartu du Foroak. **Hauxe da gure proposamena:**

Gure  
proposamena

- Gabonetako argiak Erakustoki lehiaketa hasiko den egunean **piztea**, hau da, **abenduaren 11n**.
- **Gabonetako argiak egun horretan (abenduak 11) piztu eta gabon-jaiak bukatu arte mantendu** (abenduaren 11 eta 22 bitarteko egunetan gabonetako argiak ere piztu, gabonetako erosketak herriko dendetan egin dadila bultzatuz).
- **Argiak pizteko ordutegia aldatzea**, modu horretan abenduaren 11 eta 22 bitarteko egunetan pizteak suposatuko duen **kontsumoa "konpentsatzeko"** (herritarrei horren berri ematea komeni da haiek ere sentsibilizatzeko). Hauxe da proposatzen dugun ordutegia:
  - Abenduaren 11 eta 22 bitartean: dendetako ordutegira mugatu (adibidez, arratsaldeko 18:30tik 19:30ra).
  - Abenduaren 22tik Errege Eguneraino:
    - Astelehenetik ostegunera eta igandeetan: 18:30tik 21:00 edo 22:00etara.
    - Ostiraletan eta larunbatetan: 18:30tik 22:30 edo 23:00etara.
    - Jaiegun zehatzetan (Gabon Gaua, Eguberria...): 18:30tik 00:00 edo 01:00etara.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 3. Zein bestelako apaingarri (argi-kontsumorik ez dutenak) proposatzen dira gabon-jaietan Legazpi apaintzeko?

Segidan, bileran bertan azaldu diren proposamenak eta bilera bukatu ondoren giro "informalago" batean atera direnak:

Bestetik...

- **Argirik behar ez duten apaingarriak sortzea**, adibidez egurrezko iruditxoak erabiliz edo hondakinak birziklatuz (kartoia, jogurt-poteak,...) izarrak eginez edo CD zaharrak apaingarri moduan erabiliz, ...
- Etxeetako gabon zuhaitzak **leiho ondoan** jar daitezela bultzatu (kaletik ikustean giroa alaitu egiten dutelako).
- Herriko talde desberdinekin (etxeakoandreak, adinekoak, gazteak,...) eta merkatarien elkartarekin batera, **ekimen berriren bat bultzatzea** (ikastaroak, tailerrak, lehiaketak,...) **urtean zehar gabonetako apaingarriak eskuz egiteko** (adibidez, Olentzeroak, baserritarrez jantzitako panpinak,...).

### 4. Bestelako ideiak

Herriko merkataritza bultzatzeko eta indartzeko helburuarekin, **merkatal gune handietara joateak eta bertan erosteak ekar ditzakeen ingurumen-kostuak kuantifikatzeko azterketa bat egitea** proposatu da (ondoren, horren berri emango zaie herritarrei).

## Bukatu aurretik, hiru ohar

Inmak hiru gai garrantzitsu azaldu dizkigu:

- **Legazpiko Udaleko Obra lantaldeak EKOSCAN ziurtagiria lortu du. Zorionak!**

EKOSCAN ziurtagiria Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa den IHOBK ematen duen agiria da. Ziurtagiri hori ingurumena hobetzen emaitza onak lortu dituztela egiaztatzeko gai diren edozein motatako erakundeei ematen zaie.

Legazpiko Udaleko Obra lantaldeari dagokionez, urte hasieran Obra lantaldeak ingurumenean duen eragina murrizteko ekintzak aztertu ziren eta horiek gauzatzeko hobekuntza-talde bat jarri zen martxan. Hauek izan dira aurtengo 2007rako ezarri diren helburuak:

- Hondakin arrakatsua modu egokian kudeatu eta haien erabilera murriztu (batik bat pinturak eta bernizak).
- Inausketaren hondarrak Ormaiztegiko konpost-plantara eramateko egiten diren bidaien kopurua gutxitzea eta, ondorioz, airera isurtzen den CO<sub>2</sub> murriztea.

Eta ahaleginak merezi izan du, **emaitza garrantzitsuak** lortu baitituzte! Zehazki, hauxe lortu dute:

- Ur-pinturak %36 erabiltzetik %63 erabiltzera iritsi dira.
- Landare-hondakinak kudeatzetik airera isuritako CO<sub>2</sub> %86,7an murriztu da.

- **Hitzaldi batean parte hartzeko gonbitea:**

Datorren **azaroaren 16an (ostirala)**, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean, hitzaldi bat izango da honako izenburupean: **"Emakumeak, Lurraren eta bizitzaren zaintzaileak"**. Hizlaria Nelli Arrobo Rodas izango da, Ekuadorreko 'Pueblo Indio' Fundazioaren zuzendaria. Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuak antolatu du hitzaldia eta bertan parte hartzera animatzen gaituzte. Interesgarria izango da!

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Aurreko urriaren 4ko Foroan egiteko geratu zen gaia:**

Inmak aurten burutu diren sentsibilizazio-ekintzen eta hezkuntza arloko ekintzen ebaluazioaren emaitzaren puntu bat ekarri du gogora. Izan ere, **galdera hau egin zen: egingo al zenuke ekintza hau datorren urtean? Eta asko izan dira erantzun ez zuten pertsonak**. Zergatik jakin nahi dugu. Foroaren ustez, ebaluatu diren ekintzetan aurten parte hartu ez dutenek ez dute euren burua gai ikusi ekintza horiek ebaluatzeko. Jakinaren gainean geratu gara!

### **Eta itzalaldiarekin eta hitzordu berriarekin... agur esaten dugu!**

Agenda 21eko Foroak, eta gaur landu dugun gaiarekin erabat lotuta dagoelako, gaurko deituta dagoen **itzalaldiarekin bat egin du**. Hauxe izan da aurtengo lema: "ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURREAN: PARTE HARTU". Ekimen hau erakunde desberdinek bultzatu dute: ekologistek, sindikatuek, gizarte arloko erakundeek eta herri mailakoek. Horrela, 20:00ak eta 20:05ak bitarte ilunpean jarraitu dugu gure debatea eta horrela eman diogu amaiera gaurko bilerari.

Oraingoz ez dugu Legazpiko Agenda 21eko Foroaren hurrengo hitzordua jarri baina harremanetan egongo gara!. Hurrengo bilerara arte, gaurko gaiarekin zuzenean lotuta dagoen testua uzten dizuegu.



Energia-politikaren norabidea aldatzeak berekin dakar oso koordinatuta egon behar duten neurri asko hartu beharra: neurri ekonomikoak, lege arlokoak, teknologikoak eta informaziokoak. Baina batik bat, aldaketa kulturala eskatzen du. (...)

Egin dezakegun ala ez jakiteko modu bakarra ahalegintzea da .... **Eta bihar baino, hobe gaur hastea.**

Vida Sostenible Fundazioa



**Eskerrik asko eta ongi izan!**

## 1. Eranskina. Legazpiko gabonetako argia keta apaingarriak, eztabaidagai.

### Hasierako hainbat proposamenen:

#### ● **Agenda 21 Escolar: propuestas de los/as alumnos/as:**



##### A. Gabonetako argiei eta apaingarriei buruz:

- Kontsumo txikiko bonbillak erabili.
- Erabiliko den bonbilla-kopurua murriztu.
- Kanean jartzen diren gabonetako argien arteko distantzia handitu.
- Argiak dituzten kabletan bestelako apaingarriak jarri: egurrezko irudiak, borlak, serpentinak, margotutako sokak,...)

##### B. Egutegiari eta ordutegiari buruz:

- Eguberriak iritsi arte argiak ez piztu.
- Argiak egun seinalatuetan bakarrik piztu (Olentzero, Eguberri-eguna, Gabon Zaharra,...)
- Argiak pizteko ordutegia murriztu: 18:30tik 24:00etara.

##### C. Musika:

- Gabonetako musika ez jarri edo denbora laburragoan jarri:
  - Goizetik musika ez jarri.
  - Arratsaldetik, 17:00etatik 20:00etara.
  - Abenduaren 21etik aurrera.

##### D. Bestelako proposamenak:

- Latxartegi parkeko pinuan kontsumo txikiko bonbillak jarri.
- Faroletan koloretako zelofana edo argiak jarri.
- Apatxo ondoko pinuan eta Laubideko errotondan girlandak jarri.
- Udaletxea apaindu.
- Faroletako (herri-argiak) argiak erabili gabonetako argiak jartzeko.

#### **Merkatarien proposamenak:**



##### A. Gabonetako ekintzak egun zehatzetan bildu:

- Gabonetako argiak piztearena
- Erakustoki lehiaketaren hasierarekin bat egin.

##### B. Kanean edo dendetan jar daitezkeen apaingarriak egiteko ikasleen laguntza jaso.

##### C. Gabonetarako beste proposamenak:

- Berrito erabil daitezkeen poltsak erabili.
- Ez eskatu pakete asko: oparirako papera gutxiago erabili,...
- Enbalaje ekologikoak bultzatu.

## Eta zein da Legazpiko Agenda 21eko Foroaren iritzia?



- Iraunkortasun irizpideak erabiliz, **zein proposamen bururatzen zaigu gabonetako argia keta apaingarriak hobetzeko?** Legazpin bideragarriak diren ekintzak bururatu behar zaizkigu!
- **Zein erabaki proposa dezakegu,** egunak eta orduak bateratzeko?

